

BATEtxe**a** ederra **da**.Etxe**ak** balkoi luzea **du**.**BATZUK**Etxe**ak** zaharrak **dira**Etxe**ek** urte asko **dute**

-a	-ak
-ak	-ek

Erantsiozu behar duen bukaera

1. Koaderno _____ ez **du** orri zuririk.
2. Koaderno _____ berri-berria **da**.
3. Koaderno _____ oso merke **daude** orain.
4. Koaderno _____ ez **dituzte** bi grapa.
5. Haize _____ nahiko zakar **dabil**.
6. Haize _____ ez **dira** ohikoak sasoi honetan.
7. Haize _____ euria ekarriko **du** gero.
8. Haize _____ txikizio handia egin **dute**.
9. Telefono _____ jo eta jo ari **dira**.
10. Telefono _____ ez **du** bateriarik.
11. Ume _____ ari **dira** jolasean.
12. Ume _____ ez **du** etxera joan nahi.
13. Ume _____ lo geratu **da**.
14. Ume _____ material guztia ekarri **dute**.
15. Intxaurrondo _____ ez **dauka** intxaurrik.
16. Intxaurrondo _____ ez **dira** landatu berriak.
17. Intxaurrondo _____ egur ona **dute**.
18. Intxaurrondo _____ ez **da** gurea.
19. Teilatu _____ ez **du** teila apurturik.
20. Teilatu _____ gorriak **dira**.
21. Teilatu _____ ez **dute** erretenik.